

Fiskalizazio Txostena

Informe de Fiscalización

Bilbao Exhibition Centre, SA

2019





AURKIBIDEA / ÍNDICE

LABURDURAK.....	5
I. SARRERA.....	7
II. IRITZIA.....	8
II.1 Legea betetzeari buruzko iritzia	8
II.2 Urteko kontuei buruzko iritzia.....	8
III. BARNE KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK.....	9
III.1 Langileria.....	9
III.2 Kontratazioa.....	9
III.3 Beste batzuk.....	9
IV. URTEKO KONTUAK	10
ERANSKINAK	13
A.1 Erakunde fiskalizatuaren izaera eta araudi aplikagarria	13
A.2 Ibilgetu ukiezina eta ibilgetuko inbertsioak	13
A.3 Kapital soziala.....	14
A.4 Zorpetzea	15
A.5 EBITDA eta ekitaldiaren emaitza	16
A.6 Langileen gastuak.....	17
A.7 Kontratazioa.....	18
ALEGAZIOAK	19
ABREVIATURAS	35
I. INTRODUCCIÓN.....	37
II. OPINIÓN.....	38
II.1 Opinión sobre el cumplimiento de la legalidad.....	38
II.2 Opinión sobre las cuentas anuales	38
III. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN	39
III.1 Personal.....	39
III.2 Contratación	39



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia
Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

III.3 Otros	39
IV. CUENTAS ANUALES.....	40
ANEXOS	43
A.1 Naturaleza del ente fiscalizado y normativa aplicable	43
A.2 Inmovilizado e inversiones inmobiliarias	43
A.3 Capital social	44
A.4 Endeudamiento	45
A.5 EBITDA y resultado del ejercicio	46
A.6 Gastos de personal	47
A.7 Contratación	48
ALEGACIONES	51

Vitoria-Gasteiz, 2021eko ekainaren 24a
Vitoria-Gasteiz, 24 de junio de 2021

LABURDURAK

15/2010 Legea 15/2010 Legea, uztailaren 5ekoa, abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldarazten duena, merkataritzako eragiketetan berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituena.

BFA Bizkaiko Foru Aldundia.

BIEMH Bienal de Máquina Herramienta.

EAE Euskal Autonomia Erkidegoa.

EB Espainiako Konstituzioa.

EBAO Europar Batasuneko Aldizkari Ofiziala.

EBITDA “Earnings Before Interest, Taxes, Depreciation and Amortization”. Irabaziak, Interes, Zerga, Baliogalera eta Amortizazio aurretik.

EJ Eusko Jaurlaritza.

HKEE Herri-Kontuen Euskal Epaitegia.

IEB Inbertsioen Europako Bankua.

IEEM Ekonomia Intereseko Enpresa Multzoak.

KPI Kontsumorako Prezioen Indizea.

PIH Prozedura Ireki Harmonizatua.

SPKL 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa.





I. SARRERA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak otsailaren 5eko 1/1988 Legeak eta Epaitegiaren Osokoak onetsitako Lan Programak agindutakoari jarraikiz, Bilbao Exhibition Centre Saren (aurrerantzean BEC) 2019ko Urteko Kontuen fiskalizazio lana mamitu du.

HKEEk egin zuen azken fiskalizazio-lana BECek 2008-2011aldian gauzatutako jarduerari buruzkoa izan zen.

2019ko ekitaldiko Urteko Kontuak 2020ko martxoaren 30eko Akziodunen Batzar Nagusiak onartu zituen.

Fiskalizazio-lan honek honako alderdi hauek besarkatzen ditu:

- Legezketasuna: Ezargarria den araudia bete dela egiaztatzea langileria, obren kontratazio, zerbitzu eta hornidura gaietan. Azterketa lan hau fiskalizazioaren ekitaldiari dagokio, beharrezko irizten diren beste ekitaldi batzuei buruzko egiaztatzeak egitea eragotzi gabe, fiskalizazio-gai den ekitaldian eragina dutelako.
- Kontabilitatea: Aurkeztutako dokumentazio finantzarioa ezargarri diren kontularitzako printzipioei meneratzen zaiela egiaztatzea. Gure lana kanpoko enpresa batek gauzatutako auditoretzako txostena aztertzea izan da eta horretarako, egoki iriztitako proba osagarriak eta auditoretzako beste zenbait prozedura bideratu ditugu.
- Lanaren zabalak ez du gastuaren efikazia eta efizientziari buruzko azterlan berariazkorik besarkatu; ezta, kudeaketa prozedurei buruzkorik ere. Nolanahi dela ere, fiskalizazioan zehar sortu diren akatsak Txosten honetako III. idazpuruan daude jasoak.

BEC 2001eko martxoaren 6an eratu zen eta azoka-instalazioak 2004ko apirilean zabaldu zituen. 2019ko abenduaren 31n, Sozietatea % 99,99n EAEko honako administrazio publiko hauek osatzen dute: EJ eta BFA % 99,95en jabe dira hein berean eta Barakaldoko eta Bilboko udalek % 0,02ko partaidetza du bakoitzak. Gainerako 0,01a Bilboko Merkataritza, Industria eta Nabigazio Ganberarena da.

Xede soziala merkataritza lehiaketak antolatu eta kudeatzea da, jarduera ekonomikoaren adar ezberdinen eta aisialdi eta kulturarekin lotutako beste batzuen merkataritzako sustapen modura.

BECek % 45eko partaidetza du Bilbao Exhibition Centre Solar AIEren kapital sozialean eta horren jarduera da BECen instalazioetan dauden eguzki-plakak ustiatzea.



II. IRITZIA

II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

LANGILERIA (IKUS A.6)

- 1.- Ez dago dokumentuetan jasota zein hautagaitza jaso ziren, ez eta 2019an 3 langileren kontratazio mugagabea egiteko azkenean baloratu ziren hautagaitzak hautatzea eragin zuten irizpideak ere. Honenbestez, ezin da egiaztatu berdintasun-, merezimendu- eta gaitasun-printzipioak betetzen diren. Kontratazio mugagabe horiek gainditu egiten dute Estatuaren 2018rako Aurrekontu Orokorraren uztailaren 3ko 6/2018 Legearen hogeita bederatzigarren xedapen gehigarrian ezarritako birjartze-tasa.

KONTRATAZIOA (IKUS A.7)

- 2.- Sozietateak 184.556 euroren gastua gauzatu du 2019ko ekitaldian, hiru zerbitzu eta hornidura bat zuzenean kontratatuz kontratazio-prozedurarik gabe, eta publizitate- eta lehia-printzipioak urratuz.

Epaitegi honen iritzira, 1. eta 2. paragrafoetan zehaztu diren ez-betetzeak alde batera, BECek zuzentasunez bete du 2019ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jarduera arautzen duen lege arautegia.

II.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

Epaitegi honen iritzira, BECen 2019ko ekitaldiko Urteko Kontuek alderdi esanguratsu guztietan abenduaren 31n ondarearen eta finantza egoeraren isla zuzena erakusten dute; baita, data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion haren eragiketen eta eskudiruzko fluxuen emaitzena ere, ezargarria den finantza informazioaren arau-esparruaren arabera eta, zehazki, bertan jasotako kontularitzako printzipio eta irizpideen arabera.

III. BARNE KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA-PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

Atal honetan jasotzen dira jarduera ekonomikoa eta finantzarioa arautzen duten printzipioak betetzea nabarmen eragiten ez duten akatsak eta kudeaketa hobetzeko agerian jartzen diren prozedura-alderdiak.

III.1 LANGILERIA

- Sozietateak atxikipenetik salbuetsita aitortu ditu 2019ko ekitaldian langileei urruntasun-plus gisa ordaindutako 40.221 euro, ohiko bizilekutik lantokira joateko gastuak konpentsatzeko, eta, beraz, ez du dagokion atxikipenik egin.

III.2 KONTRATAZIOA (IKUS A.7)

Kontratazioa aztertu dugu eta honako alderdi hauek bereizi ditugu:

- Lau kontratutan - 7,3 milioi euroko balio zenbatetsia dutenetan- prezioak berrikusteko Estatuko KPIari lotutako klausula bat barne hartu da; ordea, araudiaren izaera aintzat hartuta, debekatuta dago aldian-aldean eta aurrez zehaztuta berrikustea, bai eta prezioen indize orokorrekin lotzea ere (1, 2, 7 eta 8 espedienteak).
- 2 kontratutan balio-judizio baten mende dauden esleipen-irizpideei emandako balorazioak, 9,7 milioi euroren balio zenbatetsia dutenak, ez daude arrazoituta eta puntuak esleitze hutsera mugatzen da (1 eta 5 espedienteak).
- Prozedura ireki harmonizatuaren bidez izapidetutako 4 kontraturen formalizazioa, 11,2 milioi euroren balio zenbatetsia dutenak, Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataforman argitaratu da, baina ez EBAOn (1, 2, 5 eta 7 espedienteak).
- 9,7 milioi euroko balio zenbatetsia zuten bi kontratutan 3 kontratu-aldaketa egin dira 2019ko ekitaldian eta 131.703 euroren exekuzioa izan dute; ordea, horiek ez dira alderdien artean formalizatu (1 eta 5 espedienteak).

III.3 BESTE BATZUK

- Urteko kontuen memorian agertzen diren datuen arabera, 2019ko ekitaldian ordaindutako eragiketen ratioa 62 egunekoa da, eta 9,6 milioi euro ordaindu dira (ordainketa guztien % 58), 15/2010 Legean adierazitako epeak gaindituz.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

IV. URTEKO KONTUAK

EGOERAREN BALANTZEA 2019 eta 2018ko abenduaren 31n

Euroak milakotan

	ERANSKINA	31.12.19	(*) 31.12.18
AKTIBO EZ ARRUNTA		303.553	312.685
Ibilgetu ez-materiala	A.2	89	130
Ibilgetu materiala	A.2	300.667	309.758
Ibilgetuko inbertsioak.....	A.2	2.673	2.673
Taldeko enpresetan eta elkartutakoetan epe luzeko inbertsioak		124	124
AKTIBO ARRUNTA		8.215	9.932
Izakinak		476	638
Merkataritzako zordunak eta kobratzeko beste kontu batzuk.		690	2.403
Eskudirua eta beste aktibo likido baliokide batzuk.....		7.049	6.891
AKTIBOA		311.768	322.617
ONDARE GARBIA		88.545	71.419
Funts propioak		88.545	71.419
Kapitalezkoak	A.3	127.141	90.101
Erreserbak.....		6	6
Aurreko ekitaldietako emaitzak.....		(18.688)	(2.347)
Ekitaldiko emaitza.....	A.5	(19.914)	(16.341)
PASIBO EZ-ARRUNTA		189.976	219.992
Zorrak kreditu erakundeekin epe luzera	A.4	189.750	219.775
Epe luzeko hornidurak		226	217
PASIBO ARRUNTA		33.247	31.206
Zorrak, kreditu erakundeekin epe motz.....	A.4	28.129	25.728
Beste finantza pasibo batzuk.....		65	80
Merkataritzako hartzekodunak eta kobratzeko beste kontu batzuk.....		5.053	5.398
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA		311.768	322.617

(*) HKEEK fiskalizatu gabeko datuak.

2019 eta 2018ko abenduaren 31n galera-irabazien kontuak

Euroak milakotan

	ERANSKINA	2019	(*) 2018
Negozio zifraren zenbateko garbia.....		14.318	19.106
Hornikuntzak		(5.624)	(5.628)
Bestelako ustiaketa-sarrerak.....		1.176	1.666
Langileen gastuak	A.6	(4.315)	(4.264)
Ustiapeneko beste gastu batzuk.....		(8.170)	(8.861)
Ibilgetua amortizatzea.....	A.2	(9.479)	(9.524)
USTIAPENAREN EMAITZA		(12.094)	(7.505)
Sarrera finantzarioak.....		11	8
Gastu finantzarioak.....	A.4	(7.831)	(8.844)
EMAITZA FINANTZARIOA		(7.820)	(8.836)
EMAITZA ZERGA AURRETIK		(19.914)	(16.341)
EKITALDIKO EMAITZA	A.5	(19.914)	(16.341)

(*) HKEEK fiskalizatu gabeko datuak.




Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

2019ko eta 2018ko abenduaren 31n SARRERA ETA GASTU AITORTUEN EGOERA	Euroak milakotan	
	2019	2018
GALERA ETA IRABAZIEN KONTUAREN EMAITZA	(19.914)	(16.341)
SARRERA ETA GASTU AITORTUAK GUZTIRA	(19.914)	(16.341)

ONDARE GARBIAN ALDAKETEN EGOERA GUZTIRA, 2019 eta 2018ko abenduaren 31n	Euroak milakotan			
	KAPITALA ETA ERRESERBAK	AURR. EKIT. EMAITZAK	EKIT. EMAITZA	GUZTIRA
Saldoa 2018ko urtarrilaren 1ean	96.362	(20.819)	(22.823)	52.720
Kapitalaren igoera.....	35.040	-	-	35.040
Kapitalezko murrizketak.....	(41.295)	41.295	-	-
Bestelako bariozioak	-	(22.823)	22.823	-
Diru-sarrera eta gastu aitortuak guztira	-	-	(16.341)	(16.341)
Saldoa 2018ko abenduaren 31n	90.107	(2.347)	(16.341)	71.419
Kapitalaren igoera.....	37.040	-	-	37.040
Bestelako bariozioak	-	(16.341)	16.341	-
Diru-sarrera eta gastu aitortuak guztira	-	-	(19.914)	(19.914)
Saldoa 2019ko abenduaren 31n	127.147	(18.688)	(19.914)	88.545

D. ESKUDIRUZKO FLUXUEN EGOERA 2019 eta 2018ko abenduaren 31n	Euroak milakotan	
	2019	2018
Ekitaldiaren emaitza zerga aurretik	(19.914)	(16.341)
Emaitzari doikuntzak	17.308	18.393
Kapital arruntean aldaketak	1.523	18
Ustiapen jardueren eskudiruzko beste fluxu batzuk	(8.294)	(9.293)
USTIAPEN JARDUEREN ESKUDIRUZKO FLUXUAK	(9.377)	(7.223)
Ordainketak inbertsioengatik	(347)	(900)
INBERTSIO JARDUERETAKO ESKUDIRUZKO FLUXUAK	(347)	(900)
Ondareko baliabideengatik kobrantza eta ordainketak	37.040	35.040
Finantza pasiboaren tresnengatik kobrantzak eta ordainketak	(27.158)	(25.875)
FINANTZAKETA JARDUERETAKO ESKUDIRUZKO FLUXUAK	9.882	9.165
ESKUDIRU EDO BALIOKIDEEN IGOERA/MURRIZKETA GARBIA	158	1.042
Eskudirua edo baliokideak ekitaldi hasieran	6.891	5.849
Eskudirua edo baliokideak ekitaldi amaieran	7.049	6.891



ERANSKINAK

A.1 ERAKUNDE FISKALIZATUAREN IZAERA ETA ARAUDI APLIKAGARRIA

BEC sozietate anonimo bat da, kapitala gehien bat publikoa duena, zuzenbide pribatuak arautua. Aplikagarri zaio 1/2010 Legegintzako Errege Dekretua, uztailearen 2koa, Kapital Sozietateen Legearen testu bategina onartzen duena.

Ondasun eta zerbitzuen edo inbertsioen kontratazioaren esparruan BEC botere esleitzaila da, SPKLren 3.3 artikulua araberak, eta haren kontratuak, 26. artikulua araberak, pribatuak dira; bada, kontratu horien prestaketa, esleipena, ondorioak eta iraungipena SPKLren 317tik 320ra bitarteko artikuluetan xedatutakoak arautuko ditu.

Langileen kontratazioari dagokionez, sozietatean gehiengo partaidetza entitate publikoena den aldetik, printzipio konstituzionalak bete behar ditu, bereziki arbitrariotasunaren debekua (Espainiako Konstituzioaren 9.3 artikulua, aurrerantzean EK), enplegurako sarbidean berdintasuna (EK 14 eta 23.2 artikulua), eta objektibotasuna (103.1 EK artikulua); eta horiek betetzeko ezinbesteko dira merezimendu eta gaitasun printzipioak (103.3 EK artikulua).

A.2 IBILGETU UKIEZINA ETA IBILGETUKO INBERTSIOAK

Aktibo ez arrunteko idazpuru hauen mugimendua 2019ko ekitaldian honako hau izan da:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan				
	KOSTUA 19.1.1	AMORTIZ. 19.1.1	ALTAK 2019	AMORTIZ. 2019	KOSTU GARBIA 19.12.31
IBILGETU EZ-MATERIALA	4.703	(4.573)	66	(107)	89
IBILGETU MATERIALA	530.182	(220.424)	281	(9.372)	300.667
Lursailak	33.886	-	-	-	33.886
Eraikuntzak.....	383.436	(112.388)	-	(8.044)	263.004
Instalazio teknikoak eta makineria.....	96.436	(92.095)	211	(1.192)	3.360
Altzariak	14.121	(13.828)	34	(104)	223
Informazio prozesuko ekipoak	733	(543)	36	(32)	194
Beste ibilgetu material bat.....	1.570	(1.570)	-	-	-
IBILGETUKO INBERTSIOAK	2.673	-	-	-	2.673
GUZTIRA	537.558	(224.997)	347	(9.479)	303.429



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A.3 KAPITAL SOZIALA

Hona hemen kapital sozialaren mugimenduak 2019 eta 2018ko ekitaldietan eta haren osaera 2019ko abenduaren 31n:

	Euroak milakotan
Saldoa 2018ko urtarrilaren 1ean	96.356
Zabalkuntza	35.040
Murrizketa	(41.295)
Saldoa 2018ko abenduaren 31n	90.101
Zabalkuntza	37.040
Saldoa 2019ko abenduaren 31n	127.141

	% PARTAID.
EJ	% 49,976
BFA	% 49,976
Barakaldoko Udala	% 0,021
Bilboko Udala	% 0,015
Bilboko Merkataritza, Industria Eta Nabigazio Ganbera	% 0,012
GUZTIRA	% 100

Akziodunen Batzar Nagusiak, 2018ko martxoaren 19an, 41,3 milioi euroko kapital-murrizketa onartu zuen, akzioen balio nominala murriztuz, ondare garbia kapital sozialaren erdia baino txikiagoa zelako, eta ondare-egoera berrezarri zen.

Hona hemen 2019an Eusko Jaurlaritzak eta BFAk, bakoitzak % 50arekin, sinatutako kapital sozialaren handitzeak, gainerako akziodunek uko egin ondoren:

- Akziodunen Batzar Nagusiak 2019ko martxoaren 25ean onartutako 35 milioi euroko gehikuntza, 2002an formalizatutako eta, ondoren, 2014an aldatutako hitzarmenen ondorioz 2027ra arte hartutako konpromisoen arabera, BECek finantza-erakundeekiko betebeharrak bete ahal izan zitzaizkizanak, azoka-esparrua eraikitzeke emandako kredituen ondorioz.
- 2 milioi euroko gehikuntza aurreikusitako ustiapen-defizitari aurre egiteko, Akziodunen Batzar Nagusiak 2019ko ekainaren 24an onartua.

Eusko Jaurlaritzarekin eta BFArekin formalizatutako hitzarmenak 2020ko abenduan aldatu ziren, eta 2031ra arteko konpromisoak 21,5 milioi eurora igo ziren, sozietatearen maileguak aldatzeko berrikuntzetatik eratorritako finantza-interesen igoerari aurre egiteko (ikus A.4).



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A.4 ZORPETZEA

Kreditu erakundeekiko pasiboen xehakapena honako hau da:

ERAKUNDEA	EMANDAKO ZENBATEKOA	INTERES TIPOA	EMAKIDA DATA	EPE- MUGA	Euroak milakotan			
					ZORRA 19.1.1	ALTAK	AMORTIZ.	ZORRA 19.12.31
IEB	250.000	% 4,58	2003	2027	114.125	-	(18.750)	95.375
Mailegu sindikatua, A tartea ...	75.000	% 3,20	2014	2027	66.000	-	(3.000)	63.000
Mailegu sindikatua, B tartea....	75.000	Eurib.+% 1,55	2014	2027	62.400	-	(5.400)	57.000
PRINTZIPALA GUZTIRA	400.000				242.525	-	(27.150)	215.375
Interesak aldizkakotzea					2.978	2.504	(2.978)	2.504
PASIBOA, GUZTIRA	400.000				245.503	2.504	(30.128)	217.879

Sozietateak 400 milioi euroko zorpetzearen bidez finantzatu zuen bere azoka-instalazioen eraikuntza, eta 2014an mailegu sindikatua birfinantzatu zuen. 2019ko ekitaldian sortutako finantza-gastuak 7,8 milioi euro izan dira guztira.

Mailegu guztiak modu mankomunatuan bermatzen dituzte Eusko Jaurlaritzak eta BFAk, eta, gainera, printzipala eta haren interesak itzuliko direla bermatzeko, sozietateak lankidetzahitzarmenak sinatu ditu Eusko Jaurlaritzarekin eta BFArekin, kapital-handitzeen bidezko ekarpen-konpromisoak harturik (ikus A.3).

2020ko abenduan, sozietateak maileguak aldatzen dituen berrikuntza bat formalizatu zuen finantza-erakundeekin eta amortizazioaren gabezialdi bat jaso zuen 2021-2023 aldirako; gainera, epemuga 2029an ezarri zuen EIBren kasuan, eta 2031n mailegu sindikalaren kasuan.

A.5 EBITDA ETA EKITALDIAREN EMAITZA

Hona hemen ekitaldiko emaitzaren xehakapena:

	Euroak milakotan	
KONTZEPTUA	2019	2018
Hirugarrenei zerbitzuak ematea	7.503	7.758
Espazioak alokatzea.....	4.846	8.684
Sarrerak eta beste salmenta batzuk	1.121	1.510
Babesletzak eta dirulaguntzak	1.323	1.670
Bestelako sarrera txikiagoak.....	701	1.149
USTIAPEN SARRERAK	15.494	20.771
Hirugarrenei fakturagarriak zaizkien zerbitzuak.....	4.987	4.651
Langileen gastuak.....	4.315	4.264
Zerbitzu profesional independenteak	3.428	4.240
Hornidurak	1.200	1.089
Konponketak eta artapena	1.084	1.184
Publizitatea eta propaganda	872	929
Zergak	901	891
Beste gastu txikiago batzuk	1.321	1.502
USTIAPEN GASTUAK	18.108	18.750
EBITDA	(2.614)	2.021
Amortizazioa eta zuzkidurak.....	9.480	9.526
USTIAPENAREN EMAITZA	(12.094)	(7.505)
Gastuak eta sarrera finantzarioak	(7.820)	(8.836)
EKITALDIKO EMAITZA	(19.914)	(16.341)

Jarduera motaren arabera eskuratutako EBITDA honako hau da:

	Euroak milakotan	
KONTZEPTUA	2019	2018
Azoka profesionalak eta publikoarentzakoak	3.629	7.801
Kongresuak eta konbentzioak	297	402
Bizkaia Arena	634	695
Matrizea	(7.174)	(6.877)
EBITDA	(2.614)	2.021

Matrize "kontzeptuaren barruan sartzen dira, batez ere, disuasio-aparkaleku- eta bulego eta lokalen errentamendu-kontzeptuko diru-sarrerak (1,4 milioi euro 2019an) eta egiturazko gastuak (8,5 milioi euro) langile-gastu, hornidura, tributuengatik, segurtasun- eta zaintza-zerbitzu, garbiketa eta mantentze-lanen kontzeptukoak.

2019ko ekitaldian, azoka, kongresu eta ikuskizunen jarduerak sortutako EBITDA positiboak ez du lortu matrizearen EBITDA negatiboa estaltzea. 0) Hala ere, 2018an, magnitude hau ustiapeneko diru-sarreraren % 9,7 izan zen.

Hori azpiegituren finantzaketa-ereduaren ondorio da eta eredu horren arabera, sozietatea zorpetze-bidea hautatu zuen, eta bazkide nagusiek, hots, Eusko Jaurlaritzak eta BFAk,

finantza-erakundeekiko betebeharrak bermatu zituzten, kapital-zabalkuntzen bidez (ikus A.3).

Amortizazioaren zuzkidurari dagokionez, Sozietateak ez du funts hori bere gain hartzeko gaitasunik, urtean 9,5 milioi euro gutxi gorabehera, eta, ondorioz, emaitza negatiboak sortzen dira gutxienez kopuru horren zenbatekoarekin, eta aldian behin desegite-kausa egoeran gertatzen da, ondare garbia kapital sozialaren erdia baino txikiagoa baita, eta orduan, ondare-egoera kapital-murrizketen bidez berrezartzen da.

COVID-19ak eragindako osasun-krisiaren ondorioz, 2020ko martxotik aurrera sozietateak aurreikusitako azokak eta ekitaldiak bertan behera utzi behar izan ditu, BIEMH bereziki, eta 21,8 milioi euroren emaitza negatiboa eskuratu du 2020ko ekitaldian.

A.6 LANGILEEN GASTUAK

Hona hemen 2019 eta 2018ko ekitaldietako langile-gastuen xehapena:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan	
	2019	2018
Soldata eta ordainsariak	3.196	3.231
Kontratu amaitzeagatiko kalte-ordainak	35	29
Gizarte Segurantzak	852	814
Beste gizarte-gastu batzuk	232	190
GUZTIRA	4.315	4.264

Soldata-ordainsariak % 2,25 igo dira 2019ko lehen seihilekoan, 2018ko abenduaren 31n indarrean zeudenekin alderatuta, eta % 0,25 gehiago bigarren seihilekoan, Sektore Publikoaren eremuan ordainsarien arloko premiazko neurriak onartzen dituen abenduaren 21eko 24/2018 Errege Lege Dekretuan xedatutakoaren arabera.

Hona hemen plantillaren mugimenduak 2019ko ekitaldian eta xehapena 2019ko abenduaren 31n:

KONTZEPTUA	Kopurua			
	19.1.1	ALTAK	BAJAK	19.12.31
Goi zuzendaritza	1	-	-	1
Lan kontratu mugagabeak	69	3	(2)	70
Aldi baterako lan kontratupekoak erretiro partzialagatik...	9	1	(4)	6
GUZTIRA	79	4	(6)	77

Sozietateak 3 langile mugagabe kontratatuzko iragarkiak enplegu-atari batean argitaratu zituen 2019an, eta iragarki horietan jaso ziren eskatutako gutxienerako baldintzak eta balorazioan kontuan hartu beharreko alderdi gehigarriak. Hautaketa-prozesu horietan 3 eta 4 izangai artean baloratu dira, eta ez dira dokumentatu gainerako izangaiak azken balorazio-fasera zergatik ez ziren igaro.

Gainera, aldi baterako lan-enpresak aldi baterako langile-beharrak bete ditu, zeinari 2017ko abenduan zerbitzu-kontratu bat esleitu zitzaion prozedura ireki harmonizatu baten



bidez. 0} 2019ko eta 2018ko ekitaldietan 88.085 eta 170.888 euroren gastua egin da, hurrenez hurren.

A.7 KONTRATAZIOA

Kontratu mota bakoitzari ezargarriak zaizkion legezko prozedurak berrikusi ditugu zerbitzuetako 7 kontratu eta hornidurako 1 aztertuta; horiek guztiak aleko prezioetan esleitu ziren eta 18,4 milioi euroren balio zenbatetsia dute:

HELBURUA ETA IRAUPENA (LUZAPENAK BARNE)	ESLEIPENA			Euroak milakotan	
	PROZED.	DATA	B.ZENBAT.	EGIK. 2019	AKATSAK
1. Segurtasun eta zaintza (4 urte)	PIH	api-16	4.764	1.171	A1,2,3,4
2. Egitura apaingarri esekiak jartzea eta kentzea (4 urte)	PIH	abe-16	689	447	A1,3
3. Standen muntaia estandarrak (4 urte)	PIH	abe-17	1.662	630	
4. Standetako altzarien hornid. alokairu-erregim. (4 urte)	PIH	ots-18	500	138	
5. Ekitaldietan mantentze-lana eta instalaz. zerb. (4 urte)	PIH	uzt-18	4.950	1.362	A2,3,4
6. Jatetxe, kafetegi eta cateringa (5 urte)	PIH	abe-18	3.975	(*) 609	
7. Ikus-entzunezkoak: 5. lotea laguntza teknikoa (4 urte)	PIH	abe-18	783	460	A1,3
8. Ekitaldietako laguntzaileak (5 urte)	PIH	mai-19	1.109	127	A1
GUZTIRA			18.432	4.944	

(*) Exekuzioa bat dator gastuen eta kanon bidezko diru-sarreraren arteko aldearekin.

AKATSAK	Euroak milakotan	
	ESPED. ZK.	B.ZENBATETS.
A1. Prezioak berrikusteko klausulan akatsa	4	7.345
A2. Balio-judizioaren mende dauden balorazio-irizpideak ez dira nahikoa arrazoitu	2	9.714
A3. Kontratu formalizatu izana ez argitaratzea EBAOn	4	11.186
A4. Formalizatu gabeko kontratu-aldaketa	2	9.714

Gainera, honako zerbitzu eta hornidura hauetako bakoitzean hirugarren batekin zuzenean esleitutako kontratuak hauteman dira, 2019ko ekitaldian kontratu txikien atalasea gainditzen dutenak:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan		
	DATA	KONTRATUA ZENB.	GASTUA 2019
Ekipamendu informatikoetan laguntza teknikoa	urt-18	38	41
Alokairu-erregimenean izotz-pista hornitzea (2019ko edizioa)	aza-19	42	34
Komunikazio-sistemak sareetan mantentzea (5 urte)	ira-18	291	58
Plataforma informatikoan laguntza teknikoa	urt-18	(*) a.p.	52
GUZTIRA			185

(*) Aleko prezioak.



ALEGAZIOAK

A. ALEGAZIOAK TXOSTENAREN EDUKIARI

1. LANGILEAK

II. IRITZIA

II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

LANGILERIA (IKUS A.6)

1.- *Ez dago dokumentuetan jasota zein hautagaitza jaso ziren, ez eta 2019an 3 langileren kontratazio mugagabea egiteko azkenean baloratu ziren hautagaitzak hautatzea eragin zuten irizpideak ere. Honenbestez, ezin da egiaztatu berdintasun-, merezimendu- eta gaitasun-printzipioak betetzen diren. Kontratazio mugagabe horiek gainditu egiten dute Estatuaren 2018rako Aurrekontu Orokorraren uztailaren 3ko 6/2018 Legearen hogeita bederatzigarren xedapen gehigarrian ezarritako birjartze-tasa.*

1.1 Hautaketa-prozesua

Behin-behineko txostenaren atal hau 2019an hiru langileen kontratazio mugagabeari buruzkoa da.

Lehenengoz, adierazi behar da BEC bezala erakunde publikoen partaidetza duten sozietateak, uztailaren 6ko 6/1989 Legearen (Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa) aplikaziotik kanpo daudela eta langilearekiko harremana lan-zuzenbideak arautzen duela.

Era berean, lan-zuzenbideak arautzen dituen kontratuak kontratazio publikoaren legegintzaren aplikazio eremuaren kanpo gelditzen dira (azaroaren 8ko 9/2017 Legearen -Sektore Publikoko Kontratuena- 11.1 artikulua "SPKL").

Hau da, zentzu hertsian, BECentzat aplikaziokoa den esparru juridikoak ez dio berdintasuneko, merezimenduko edo gaitasuneko baldintzarik ezartzen Auzitegi Gorenaren lan-arloko laugarren salak 2019ko urtarrilak 24ko doktrina bateratzeko bere autoan nabarmendu zuen bezala (1843/2018 errek.), beraz BECi ezin zaio ezer leporatu zentzu honetan:

“Egindako konparaketatik ondoriozta daiteke ez dagoela kontraesanik alderatutako epaien artean, bi kasuetan merkataritza-sozietate publikoak izan arren. Baina, kontraste-epaia sozietate publiko autonomiko bati buruzkoa da eta abenduaren 17ko 16/2010 Legearen (Administrazio Orokorraren eta Galiziako sektore publiko autonomikoaren Antolamendu eta Funtzionamenduari buruzkoa) pean dago, zeina 110. artikulua arabera, EPOEaren lehenengo xedapen gehigarriaren arabera arautzen den; xedapen honek berdintasuneko, gaitasuneko eta merezimenduko printzipioak ezartzen ditu langileak hautatzeko. Hori ez da hala errekurtsua jarri zaionarentzat, horretan ez baitago



berariazko araurik derrigorrez adierazitako printzipio konstituzionalen arabera kontratatzeko, hitzarmen kolektiboaren aurreikuspenez gain.”

Hala bada ere, aipatutako langileen kontratazioaren aurretik iragarpenak argitaratu ziren hedapen gehieneko lan-poltsarako atarrietako batean, InfoJobs, eta berdintasuneko, merezimenduko eta gaitasuneko printzipioak jarraitu ziren.

Adierazi den moduan, BECek du legezko obligaziorik langileak euskal herriko administrazioen langileei aplikagarri zaien araudiaren arabera hautatzeko, baina horren kalterik gabe, egia da langileak hautatzean BECek osotara jarraitzen dituela publikotasun, berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak, konstituzio-jurisprudentziak eta funtzio publikoaren araudiak printzipio hauek gauzatu dituzten eran.

Ondoren, alderdi hauetako bakoitza egiaztatzen da.

Egindako kontratazioetan jarraitutako protokoloa honako hau izan da zehazki:

1. Lanpostuaren eta egin beharreko lanaren barne-definizioa, halaber balioztatuko diren baldintza eta alderdienak; definizio hau kontratazioa egiten duen Arloko Zuzendariak eta BECeko Giza-baliabideen Zuzendariak osatu dute.
2. BECen Intranetaren bitartez iragarpenaren argitalpena, langileei barne-sustapenerako aukera emanik. Gainera, Giza-baliabide sailak langileei mezu elektronikoko bat bidaltzen die barne-sustapenerako deialdiaren argitalpena jakinarazteko.
3. Barne-sustapenerako deialdiaren epea iragan ondoren postua bete ez bada, kanpoko deialdia egiten da, iragarpen bera argitaratuz InfoJobs atarian, gure esparruko hedapen gehieneko lan-poltsarako bat. Beraz, BECek berezko kudeaketa sistema bat dauka kontratazioa egiteko, hedapen saretzat InfoJobs ataria erabiltzen duelarik.

Sistema hori plataforma erabat irekia eta interesa duten guztientzat irisgarria da, deialdiei gehieneko irekiera eta hedapena emanez.

Iragarpenean ezarritako epea iragan ondoren, eta InfoJobs plataformak zerbitzu hau eskaintzen ez duenez, Giza-baliabideen Zuzendariak aurre hautaketa-fasea egiten du; fase horretan hautagaiak bete nahi den postua era egokian egingo dela bermatzeko aurretiko prestakuntza eta esperientzia nahikoko baldintzak betetzen dituzten egiaztatzen du.

Bereziki, hala egiten da behin-behineko txostenak aipatzen dituen hiru prozesuetan jasotako curriculum guztiei dagokienez; honek ongi adierazten du plataforma honen bitartez lortutako lehia-atalasearen neurri altua. Guzti hori, lanposturako ehundaka hautagaien arteko berdintasun printzipioa erabat jarraituz.

Plataforman izena eman duten hautagaitza guztien guztizko kopuruaren akreditazioa ezin izan da gorde, izan ere InfoJobs-en politikaren arabera plataformak aldizka ezabatzen ditu.

4. Hurrengo fasera igarotzen diren 3, 5 eta 7 hautagaien hautaketa lanposturako beharrezkoak diren baldintzak betetzen dituzten ala ez eta aurkeztutako hautagaitzen arabera egiten du BECek.



5. BECek hautagaiak elkarrizketatzen ditu eta azkeneko hautaketa egiten du, eta bere balorazioa dagozkien txostenetan islatzen du, Auzitegiari jada bidali zaizkionak.
6. InfoJobs plataforma beraren bitartez interesdunei hautagaitzaren ukapena/deialdiaren amaiera jakinarazten zaie.

Aurrekoa egiaztatzen duen dokumentazioa gehitzen da, adierazgarri gisa, prozesuetako bati dagokiona (1. dokumentua). Jarraitutako eta hemen deskribatutako prozesuak publikotasun, berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak osotara jarraitzen ditu.

Hortaz, idatzi honetan azaldutako guztiak egiaztatzen du: (i) BECen langileen kontratazioa ez dagoela ez estatuko funtzio publikoaren araubide juridikoaren ezta euskal erkidegoarenaren menpe; (ii) hala bada ere, BECen langileen kontratazioan publikotasun, berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak goitik behera jarraitzen direla.

Arlo honetan ez da, beraz, arau-hausterik hautematen.

1.2 Berrezarpen-tasari buruz

Uztailaren 3ko 6/2018 Legearen (2018rako Estatuaren Aurrekontu Orokorrena, “EAOL”) 29. xedapen gehigarria -aztertutako ariketari ratione temporis aplikagarria- da, hala esanik, merkataritza-sozietate publikoetako eta enpresa-entitate publikoetako langileak kontratatzeke buruzkoa:

“Hogeita bederatzigarren xedapen gehigarria. Merkataritza-sozietate publikoetako eta enpresa-entitate publikoetako langileak kontratatzea.

Bat.

1. Lege honen 18. artikulua Bat zenbakian aipatutako merkataritza-sozietate publikoek eta enpresa-entitate publikoek langile berriak kontratatu ahal izango dituzte; betiere, xedapen honetan ezarritako mugak eta baldintzak betez.
2. Muga horiek ezin izango dira aplikatu, funtzionarioak edo langile lan-kontratudunak kontratatu behar direnean, zeinek aurrez Estatuako, autonomiako edo tokiko sektore publikoarekiko harreman finko eta mugagabea baitzeukaten, eta enpresa-entitate publikoa edo merkataritza-sozietatea sektore horretan sartuta bazegoen. Era berean, muga horiek ezin izango zaizkie aplikatu betetzeko zailak diren eremuei, ezta prestasun bereziko erreserbagileei ere, baldin eta, erreserbagileek, kontratua egin arte, prestasunordainsaria jasotzen bazuten, apirilaren 24ko 8/2006 Legearen 19.1 artikuluan ezarritako zenbatekoari eta baldintzei jarraikiz (8/2006 Legea, Tropako Militarren eta Marinelena). Apartatu honetan ezarritakoaren babesean egindako kontratuak antzinasun-osagarria jasotzen jarraitzeko eskubidea sortuko dute, kontratua gauzatzen den datatik aurrera, jatorrizko ministerio-sail, erakunde publiko, sozietate, fundazio edo partzuergoan jasotzen zen zenbateko berean.
3. Ezin izango da aldi baterako kontrataziorik egin, honako kasu hauetan izan ezik: salbuespen kasuetan, presakoak eta geroraezinak diren beharrei erantzun behar zaienean edo azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 32. artikuluan ezarritako baldintzen arabera egiten direnean (Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen bitartez,

Espainiako ordenamendu juridikora ekartzen dira Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauak).

4. Zerbitzu publikoak kudeatzen dituzten edo lege honen 19.Bat.3 artikuluan zerrendatutako jarduerak egiten dituzten merkataritza-sozietate publikoek eta enpresa-entitate publikoek gehienez ere aipatutako arauan kasuan kasuko sektorerako ezarritako berrezarpen-tasa izango dute, baldintza beretan, tasa horren beharra justifikatuta dagoenean zerbitzua egoki emateko edo jarduera aurrera eramateko.
5. Azken hiru ekitaldietatik bitan etekinak izan dituzten merkataritza-sozietate publikoek eta enpresa-entitate publikoek -aurreko zenbakian jasotako ez beste batzuek- kontratu mugagabeak egin ahal izango dituzte, haien berrezarpen-tasaren ehuneko 100 izanik muga; tasa hori lege honen 19.Bat.7 artikuluan ezarritako arauen arabera kalkulatu da.

Gainera, azken hiru ekitaldietatik bitan etekinak izan ez dituzten merkataritza-sozietate publikoek eta enpresa-entitate publikoek -aurreko zenbakian jasotako ez beste batzuek- kontratu mugagabeak egin ahal izango dituzte, haien berrezarpen-tasaren ehuneko 75 izanik muga; tasa hori lege honen 19.Bat.7 artikuluan ezarritako arauen arabera kalkulatu da.

6. Horrez gain, merkataritza-sozietate publikoek eta enpresa-entitate publikoek kontratu mugagabeak sinatu ahalko dituzte, berrezarpen-tasa osoaren ehuneko 5ekoaren baliokidea den lanpostuen kopurua eskainita, eta efektiboak indartu behar dituzten eremuetan edo sektoreetan erabiliko dira.

Ehuneko gehigarri horri lehentasuna duten sektoreetan erabiliko da, bai eta honako egoera hauetako bat gertatzen denean ere: zerbitzu publiko berriak ezartzea; jarduera turistikoaren ondoriozko urtaroko jarduera handitzea; edo langile askok erretiroa hartzea planeatuta egotea.

7. Gainera, merkataritza-sozietate publikoek eta enpresa-entitate publikoek tasa gehigarria erabili ahalko dute, aurrekontu-zuzkidura duten lanpostuen aldi baterakotasuna egonkortzeko, baldin eta lanpostuok gutxienez 2017ko abenduaren 31ren aurreko hiru urteetan aldi baterako eta etengabe beteta egon badira.

Egonkortzeko prozesuak 2018. urtetik 2020. urtera onartu eta argitaratu beharko dira. Hautaketa-prozesuak egituratzean uneoro bermatuta egongo da honako printzipio hauek betetzea: lehia librea, berdintasuna, merezimendua, gaitasuna eta publikotasuna. Horrez gain, negoziazio kolektiboaren xede izan ahalko dira beti.

Prozesu horien ebaztetik ezin izango da eratorri, inolaz ere, ez gastuaren ez langileen handitzerik, eta prozesu hauetan guztietan, nahitaez, egiturazkoak diren lanpostuak eskaini beharko dira, aldi baterako lotura duten langileek betetzen dituztenak.

Bi. Estatuko merkataritza-sozietateen eta enpresa-entitate publikoen kasuan, langile berriei kontratu mugagabea egiteko, Bat zenbakian xedatutakoa betetzeaz gain, Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioaren —Aurrekontuen eta Gastuen



Estatu Idazkaritzaren eta Funtzio Publikoko Idazkaritzaren bitartez— eta akziodun maioritarioaren aldeko txostena beharko da.

Halaber, aipatutako sozietateen eta enpresa-entitate publikoen aldi baterako kontrataziorako, xedapen honen Bat zenbakian ezarritako baldintzez gainera, Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioaren baimena beharko da, Aurrekontuen eta Gastuen Estatu Idazkaritzaren eta Funtzio Publikoko Idazkaritzaren bitartez. Baimen hori lortze aldera, urteko lehen seihilekoan, enpresa-sozietate eta -entitate publikoek, akziodun maioritarioaren edo haiek barne hartzen dituen ministerioaren edo erakunde autonomoaren bitartez, ministerioari bidali beharko diote ekitaldirako aurreikusi dituzten aldi baterako kontratazio-beharren zerrenda; hargatik eragotzi gabe ekitaldian geroago sortzen diren premiei erantzun ahal izateko kontratazioak egiteko baimena ere eskatu ahal izatea.

Funtzio Publikoaren Estatu Idazkaritzak jarduketa-oinarri edo -irizpide komunak ezarri ahalko ditu hautapen prozesuetan, lehia librearen, berdintasunaren, publikotasunaren, merezimenduaren eta gaitasun printzipioen aplikazioa gauzatzeko, bai eta prozedura elektronikoa ezartzeko ere.

Estatuko merkataritza-sozietateek eta enpresa-entitate publikoek aurreko ekitaldian zerbitzuak eman dituzten aldi baterako langile guztiei buruzko informazioa igorri beharko diote Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioari, urteko lanegun kopurua eta horien kostua zehaztuz; informazio horrekin batera, soldata-masa baimentzeko eskaera ere igorri beharko diote.

Hiru. Aparteko kasuetan, Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioak, Aurrekontuen eta Gastuen Idazkaritzaren eta Funtzio Publikoko Estatu Idazkaritzaren bitartez, baimena eman ahalko du, aurrez aipatutako mugen gainetik, kontratazioak egiteko; hain zuzen ere, akziodun maioritarioak onetsi dituen eta Ekonomia Gaietarako Gobernuaren Ordezko Batzordearen aldeko txostena duten plangintza tresna estrategikoak betetzeko behar diren kontratazioak.

Lau. Xedapen gehigarri honen Bat paragrafoan ezarritakoak oinarritzko izaera du, eta Konstituzioaren 149.1.13 eta 156.1 artikuluen babesean ematen da.”

Izan ere, aipatutako xedapen gehigarriak berrezarpen-tasa ezberdina ezartzen du merkataritza-sozietate publikoaren izaera, funtzio eta ezaugarrien arabera eta bete nahi diren lanpostuen arabera.

Helburu horretarako, alderdi ezberdinak hartzen dira kontuan, hala nola:

1. Langile finkoen eta mugagabeen aurretiko harremana sektore publikoan;
2. Presakoak eta geroraezinak diren beharrak, aldi baterako langileen kontratazioaren kasuan;
3. Sozietateek zerbitzu publikoak kudeatzen dituzten edo 2018rako EAOLaren 19.Bat.3 artikuluan zerrendatutako jarduerak egiten dituzten;
4. Sozietate publikoek aurreko ekitaldietan etekinak izan dituzten ala ez;
5. Lehentasuna duten sektoreen barne dauden, aurreikusitako egoeratan;



6. Aldi baterakotasuna egonkortzeko beharra, zenbait baldintzapean; eta
7. Estatuko merkataritza-sozietateak diren ala ez.

Hala, hartzen da behin-behineko txostenak erreferentziatzat hartzen duela merkataritza-sozietate publikoentzat aurreikusitako % 75eko berrezarpen-tasa, 29. xedapen gehigarriaren Bat atalaren 1 - 4 artikuluetan aurreikusitako tasa orokor horretarako salbuespenak gogoan hartu gabe.

BECen irizpide adeitsuei jarraituz ez da kontuan hartu aipatutako xedapen gehigarriaren Bat.7 atalean jasotako araudi berezia, fiskalizazio-gai den ekitaldiaren aurreko hiru urteetan aldi baterako eta etengabe betetako lanpostuak egonkortzeko prozesua gauzatu duten merkataritza-sozietateentzat.

Hala, 2019 ekitaldian BECek Merkataritza-saileko lanpostu bat bete zuen, ordurarte 2016, 2017 eta 2018 ekitaldietan (i) bai aldi baterako lan-enpresen bitartez egindako aldi baterako kontratazioen bidez; edo (ii) bai praktiketarako kontratuen bitartez unibertsitate ezberdinetako ikasleekin edo baita prestakuntza-beken bitartez.

Aldi baterako lotura duten langileek betetako beharrezko izaerako edo egiturazkoa den lanpostu bat betetzeko xedez, BECek lanposturako deialdia egin du hautaketarako dagokion prozesua jarraituz lehia librea, berdintasun, merezimendu, gaitasun eta publikotasun printzipioak jarraituz.

Azkenik, ohartarazi behar da lanpostu hori betetzeak ez duela gastua ezta langileak handitu, aurreko hiru ekitaldietan BECen langile-beharrak estaltzeko erabilitako formulak kontuan hartuta, adierazitako baldintzatan.

29. Xedapen gehigarriaren Bat.7 atalean aurreikusitakoari jarraikiz, BECek uste du egindako kontratazioaren beharra datzan egoeren azterketa egiteko nahikoa dela eskainitako plazak erreferentziatzat hartutako epean hain zuzen aldi baterako langileek bete zituztela egiaztatzea, eta horiek betetzea bidezkoa dela.

Irizpide hau jarraitu du Auzitegi Gorenak 2020ko irailak 28ko 1208/2020 Epaian, Administrazioarekiko Auzien Hirugarren Sala, 4. Saila (384/2018 erre.); horretan eskainitako lanpostuen ezaugarrien justifikazioari ekiten zaie beharren eta aipatutako 3/2017 legearen 19.Bat.6 artikulua (2018rako EAOLren 19.Bat.9 artikulua aurrekaria dena eta 29. Xedapen gehigarriak sozietate publikoetarako aurreikusten duen testuaren baliokidea duena) arabera:

"Egiazki, Errege Dekretuaren atarikoak dio eskainitako plazak «aurretik eskatutakoak direla, sail edo erakunde bakoitzak dituen edo Justizia Administrazioak hauteman dituen beharrak aztertu ondoren eta langileen ordezkariekin negoziatu ostean». Eta, nahiz eta eskaera hori jasota egon, analisisa ez dago espedientean. Hala ere, kontuan izan behar dugu lege-eskakizuna 2016ko abenduaren 31 baino lehen hiru urtez baino gehiagoz etenik gabe aldi baterako langileek bete dituzten plazak identifikatzera mugatzen dela, eta badirudi baldintza hori bete dela. Gainera, haiek etenik gabe aldi batez betetzeak garbi uzten du beharrezkoak direla. Plaza horiek kidegoen eta betetzeko moduen arabera -txanda irekia edo barne-sustapena-. Halaber, onartu behar dugu ezinezkoa dela aurretik zehaztea bete beharreko plazen kokapena eta xehetasuna, Justiziako estatu-idazkariaren



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

memorian aipatutako eta demandaren erantzunean jasotako arrazoiarengatik; alegia, berriek bete aurretik, plaza hutsak karrerako funtzionarioei eskaini behar zaizkiela lekualdatze-lehiaketaren bidez.

Egoera horretan, ez dugu uste gabezia horrek (alegia, azterlanik ez egoteak) lan-eskaintza publikoa baliorik gabe uzteko behar adinako funtsa duenik. Egia esan, 3/2017 Legearen 19.1.6 artikuluari buruzko azterlan horrek zera besterik ez du egiaztatzen: eskaintako plazak, hain zuzen ere, aldi baterako langileek bete zituztela legegileak zehaztutako denboraldian. Eta errekurtsogileek ez dute ukatzen hala gertatu denik eskaintako plaza guztietan, eta demandari erantsitako galdera parlamentarioaren erantzunetik (954/2018 Errege Dekretua baino urtebete lehenagokoa) ez da kontrakorik ondorioztatzen".

Hortaz, plaza hiru urtez beteta egoteak garbi erakusten du hura behin betiko bete behar dela, baldintzak betetzeari dagokionez garrantzitsuena legegileak ezarritako aldi baterako irizpideak betetzen direla egiaztatzea baita.

Esandako guztiagatik, BECen iritzi apalean, 2019ko kontratazio-prozesuak ez du urratu 2018. urteko Estatuko Aurrekontu Orokorren Legearen 29. xedapen gehigarrian aplikagarria den berrezarpen-tasa, 1.7 atalak enplegua egonkortzeko prozesuei dagokienez egiten duen salbuespena kontuan hartuta.¹

2. KONTRATAZIO PUBLIKOA

KONTRATAZIOA (IKUS A.7)

2.- Sozietateak 184.556 euroren gastua gauzatu du 2019ko ekitaldian, hiru zerbitzu eta hornidura bat zuzenean kontratatuz kontratazio-prozedurarik gabe, eta publizitate- eta lehia-printzipioak urratuz.

Alderdi hauek hartu behar dira aintzat behin-behineko txostenaren A.7 atalean adierazitako lehiaketetako bakoitzari dagokionez.

2.1. Ekipamendu informatikoetarako laguntza teknikoa

Errespetu osoz, txostenean akats bat dago: 2019an, oraindik ere, 2008ko urtarrilean (hau da, egun indargabetuta dagoen 30/2007 Legea, urriaren 30ekoa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa -2007ko SPKL- indarrean jarri baino lehen) kontratatu zenak ematen

¹ Kontratazio horiei buruz emandako dokumentazioak ez du etenik gabeko 3 urteko aldia hartzen, eta, gainera, administrazioko lanpostuei dagokie; ordea, plaza hori merkataritza-teknikariarena da eta lanpostu hori betetzeko unibertsitate-gradua eskatzen zaio. Gainera, prestakuntza-bekek ez dute lan-izaerarik.



zuen zerbitzua, kontratua luzatzeko aukera baitzegoen, kontratuan bertan berariaz adierazi bezala (kontratuaren 2. klausula).

2019an kontratu honek eragindako gastu espezifikoa 41.000 eurokoa izan da (gehi BEZa).

Nabarmendu beharra dago, denbora-kontuengatik kasuari aplikagarria zaion indarreko kontratazio-araudia kontuan hartuta, kontratu horrek ez zituela bete behar gehieneko iraupen-epeak (2/2000 Legegintzako Errege Dekretua, ekainaren 16koa, Herri Administrazioen Kontratuen Legeari buruzko testu bategina onartzen duena –HAKLTB-: 198. artikulua), eta haiek herri-administrazioei soilik aplikatzekoak zirela.

Beraz, behin-behineko txosteneko salbuespenak ez du xederik.²

2.2 Izotz-pista alokairu-erregimenean kontratatzea (2019ko edizioa)

Kontratu honen bidez, izotz-pista kontratatu zen 2019ko Gabonetako Haur Parkea (GHP) egiteko.

Azpinarratu behar da hori ez dela aurreikusteko moduko behar bat edo behar iraunkor bat BECentzat, erakusketari batek azokan parte hartzea erabaki zuelako kontratatu baitzen izotz-pista, eta nork parte hartzen duen urtez urte banan-banan erabakitzen baita.

Hain zuzen ere, 2019ko azaroaren 4a baino geroago jaso zuen BECek kontratazio-behar hau eragin zuen erakusketariarekin formalizatutako hitzarmena.

Azaroaren 5ean formalizatu zen kontratua, sinadura elektronikoa ikusten den bezala.

Auzitegiari aurkeztu zaion kontratuzko dokumentazioan ageri denez, pista prestatzeko eta muntatzeko behar ziren epeak kontuan hartuta, ezin izan zen lizitaziorik egin behar horri erantzuteko, ez gehiago luzatzeko, azokaren data finkatuta zegoelako (2019ko abenduaren 19an inauguratuko zen).³

